BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

5507

EBAZPENA, 2012ko azaroaren 5ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak Ermuko udalerrian sustatzen duen Zaldibar-Ermua tarteko trenbide-trazaduraren saihesbidearen proiektuari buruzko ingurumen-inpaktuaren adierazpena egiteko dena (PK 3+920 eta PK 5+528 arteko azpitartea).

Otsailaren 27ko Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Lege Orokorraren arabera, haren I. eranskineko B) atalean agertzen diren proiektuak ingurumen-inpaktua banaka ebaluatzeko jardunbide baten mende egongo dira, eta jardunbide horri amaiera emateko ingurumen-inpaktuari buruzko adierazpena egin beharko da, betiere proiektu horiek egiteko, edo, hala badagokie, baimentzeko hartzen den administrazio-ebazpenaren aurretik.

Zaldibar-Ermua tarteko trenbide-trazaduraren saihesbidearen proiektua onartzeko prozedura hasi delarik, honako arau hauek aplikatu behar dira: batetik, otsailaren 27ko Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Lege Orokorra, eta, bestetik, Proiektuen ingurumen-inpaktua ebaluatzeko Legearen testu bategina onartzeko den urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua. Beraz, bi arau horiek betez, proiektu horrekin zerikusia duten eta jarraian jasotzen diren izapideak gauzatu dira, besteak beste:

● Ingurumen-inpaktuaren azterketaren edukia ezartzea. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak eskatuta, 2010eko urriaren 14an, Ingurumen Sailburuordetzak kontsulten izapideari hasiera eman zion, urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 8.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Izapidetze hori amaitu zen, hain zuzen ere, ingurumen-organoak, 2011ko urtarrilaren 24an, proiektuak ingurumenean zuen eraginaren azterlanaren zabalerari eta xehetasun-mailari buruzko txostena bidali zuenean.

● Jendaurreko informazioaren izapidea. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak jendaurrean jarri zuen proiektu hori, bai eta proiektu horren ingurumen-inpaktuari buruzko azterlana ere (2011ko apirilaren 15eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 74. zenbakia).

● Entzunaldiaren izapidea. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak proiektuaren eta ingurumen-inpaktuaren azterlanaren gaineko kontsulta egin zien eragindako administrazioei eta interesdunei, 2012ko otsailaren 12an.

● Espedientea bidali eta ingurumen-inpaktuari buruzko adierazpena eskatzea. 2012ko maiatzaren 10ean, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak Ingurumeneko Sailburuordetzara bidali zuen espedientea, urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 12 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

● Eskabidea zuzentzeko eskatzea. Ikusirik Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak aurkeztutako eskabideak ez zituela betetzen ingurumen-inpaktua ebaluatzeko arauetan eskatzen diren betekizun guztiak, ingurumen-organoak 2012ko maiatzaren 18an eta abuztuaren 14an eskabidea zuzen zezan eskatu zion aipatu sailari.

● Ingurumen-inpaktuari buruzko adierazpenaren eskabidea aldatzea. 2012ko urriaren 3an, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak pK 3+920 eta pK 5+528 arteko azpitartearen ingurumen-inpaktuari buruzko adierazpena eskatu zuen (tartearen azken azpitartea). Era berean, ingurumen-

organoak eskatutako agiri osagarriak aurkezteko epea hiru hilabetez luzatzeko eskatu zuen aipatu sailak. 2012ko azaroaren 5ean, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak PK 3+920 eta PK 5+528 arteko azpitartearen ingurumen-inpaktuari buruzko adierazpena eskatzeko eskabidea bete zuen.

Agiri teknikoak eta proiektuaren espedientean dauden txostenak aztertuta, eta ikusita azpitarte horretako ingurumen-inpaktuaren azterketa egokia dela eta bat datorrela indarrean dagoen legeriarekin, gainerako azpitarteei dagokienez garrantzizko inpakturik ez denez antzeman –ez metatze-inpakturik ezta inpaktu sinergikorik ere–, Ingurumen Sailburuordetzak, ingurumen-inpaktuaren adierazpena egiteko organo eskuduna denez, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legearen eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko egitura organikoa eta zereginak finkatzen dituen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuaren arabera, hauxe

EBAZTEN DU:

1.– Ingurumen-inpaktuaren aldeko adierazpena egitea, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak Ermuko udalerrian sustatzen duen Zaldibar-Ermua tarteko trenbide-trazaduraren saihesbidearen proiektuari dagokionez (PK 3+920 eta PK 5+528 arteko azpitartea).

2.– Honako baldintza hauek ezartzea proiektua burutzeko (baldintzok lotesleak dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 47.2 artikuluari jarraikiz).

2.A.– Proiektua, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa egiteko Ingurumen Sailburuordetzan aurkeztutako agirietan jasotakoaren arabera eta berariaz ebazpen honetan finkatutako zehaztapenen arabera gauzatu beharko da.

2.B.– Proiektua aldatu edo handitu nahi izanez gero, urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar da, bere II. eranskineko 9.k) epigrafearekin bat. Horren bidez onartu zen proiektuen ingurumen-inpaktua ebaluatzeko Legearen testu bategina.

Proiektuan egingo diren aldaketa jakinak aurreko idatzi-zatian adierazitako garrantzirik ez dutenean, obrak egiteko falta diren gainerako prozeduretan sortzen direnean, ingurumenaren ikuspegitik ere arrazoitu egin beharko dira, eta aldaketok proiektuko neurri babesle eta zuzentzaileetan, ingurumena zaintzeko programan, aurrekontuan eta baldintza-agirietan sartuko dira.

2.C.– Neurri babesleak eta zuzentzaileak.

Neurri babesle eta zuzentzaileak gauzatuko dira, betiere, egitasmoaren sustatzaileak ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko aurkeztutako agirietan jasotakoaren arabera. Horrenbestez, ezarritako neurrien hedadurak eta kontrola gauzatzeko jarritako langileek bermatu behar dituzte azterlanean finkatutako kalitate-helburuak, bai eta ingurumen-inpaktuari buruzko adierazpen honetan ezarritakoak ere. Ondorengo idatzi-zatietan adierazitako neurriak ere gehitu beharko dira.

Neurri hauek guztiak obra kontratatzeko baldintza-agirietan erantsi beharko dira, eta baldintza horiek betetzen direla bermatuko duen aurrekontua ere izan beharko dute.

2.c.1.– Ondare naturala babesteko neurriak.

Bertako hainbat baso-espezieren araubide bereziari buruzko urriaren 14ko 11/1997 Foru Aginduan xedatutakoa aplikatzeari kalterik egin gabe, honako neurri hauek aplikatuko dira:

a) Obrak, bai eta lurzorua okupatzea eragiten duten lan osagarriak ere, espedientearen agiri teknikoetan aurreikusitako gehieneko eragin-mugen barruan egingo dira. Ahalik eta gehien murriztuko da obretako makinen eta ibilgailuen zirkulazioa aipatutako mugetatik kanpo.

Adierazi den eremutik kanpo ustekabeko eraginik gertatzen bada, zuzentzeko eta leheneratzeko neurri egokiak aplikatuko dira, ebazpen honetako 2.c.10 paragrafoan adierazitako ingurumen-aholkularitzak txostena egin ondoren.

b) obrako sarrerak, makinak, obrako materialak behin-behinean biltegiratzeko eremua, eta indusketa-lurrak eta hondakinak behin-behinean biltzeko eremua eraikuntza-proiektuan zehaztu beharko dira, betiere ingurumen-inpaktuaren azterlanean eta ebazpen honetan ezarritako baldintzak kontuan hartuta.

c) Eitzagako tunelaren sarbidearen inguruan, erkidego-intereseko habitatak dituzten hainbat eremu daude: 6210 larre lehor erdi-naturalak eta kare-substratu gaineko sastrakadiak (Festuco-Brometalia) (orkidea askoko parajea) eta 4030 txilardi lehor europear. Eremu horiek, 2012ko azaroaren 5ean espedienteari erantsitako planoan mugatuta daude. Obrek, sarrerak eta instalazio osagarriak barne, ezingo diete eremu horiei eragin.

d) Eitzagako tunelaren sarbidearen ondoan kokatzea aurreikusita dauden instalazio osagarriak ondo mugatuta egon beharko dute erainkuntza-proiektuan. Horien neurriak ezarri beharko dira, betiere handik hurbil dauden harizti atlantikoko eremuei ahalik eta gutxien eraginez.

Kontratistak erabiliko dituen instalazio-eremuak egokitu egingo dira, bertan gauzatuko diren jarduera askotarikoen ondorioz ingurumenean sor daitezkeen kalteak ahal dela gutxitzeko.

Instalazio-eremu horien ezaugarri zehatzak obrako zuzendaritzak onartu beharko ditu, ebazpen honetako 2.c.10 idatzi-zatian adierazitako ingurumen-aholkularitzaren txostena ikusi ondoren.

e) Dena den, okupazio zuzena aurreikusita ez dagoen eremuetan ezingo dira zuhaitz-erako baso-landareen sastrakak kendu, batik bat tunelaren bokaleetan eta sarreretan. Horretarako, obrak hasi baino lehen, zehatz-mehatz mugatu eta balizatu beharko dira erkidego-interesa duten habitatat eta obrak gauzatzeko nahitaez ebaki behar ez diren zuhaitzak eta zuhaitz-unadak. Obrako zuzendaritzak onetsi beharko ditu babestu beharreko eremu horiek, ebazpen honetako 2.c.10 idatzi-zatian adierazitako ingurumen-aholkularitzaren txostena ikusi ondoren.

2.c.2.– Ura eta lurzorua babesteko neurriak.

Aplika daitezkeen prozeduren esparruan uren arloko organo eskudunak egoera honetan ezarriko dituen baldintzez gain, honako neurri babesle eta zuzentzaile hauek ere hartu beharko dira:

a) Eraikuntza-lanak egin bitartean, ahalik eta material xehe eta bestelako substantzia kutsatzaile gutxien bota behar da drainatze-sarera. Beraz, obrak eta lan osagarria direla-eta kutsatuta gertatzen diren urak bildu eta kudeatzeko gailuak jarriko dira martxan obra-eremuetan.

Proiektatutako tunelaren sarbidean, dekantagailu lamelarrak jarriko dira, indusketatik etortzen diren efluenteak tratatzeko prentsa-iragazkiak dituztela.

Obra-eremuan hormigoi-makinak garbitzea aurreikusten bada, lan horietatik gelditzen diren urak kudeatzeko sistema espezifikoak jarriko dira.

Gailu horien neurriak ezartzean, beharrezko kalkulu hidraulikoak egingo dira, solidoak ahalik eta ondoen atxikitzeko, eta, betiere, isurketa horiek lokalizatuak eta indarrean dagoen araudiaren araberakoak izango direla bermatuko da, uraren parametro fisiko eta kimikoei dagokienez.

Sistema horien ezaugarriak, kokaleku zehatza eta neurriak adierazi beharko dira ebazpen honen 2.c.11 idatzi-zatian aipatzen den lan-programan.

Sistema horiek aldiro ikuskatu beharko dira, erabiltzeko gaitasun nahikoa izan dezaten uneoro eta tratamendu-sistemari ahalik eta etekin hoberena aterako zaiola bermatzeko.

Dekantatutako jalkinak aldian-aldian jaso eta kudeatuko dira, ebazpen honen 2.c.5 idatzi-zatian xedatutakoaren arabera.

b) Ubide inguruetan egiten diren lur-mugimenduek isuri zehaztugabeak sor baditzakete, iragazkiak jarriko dira obrak eragindako eremuan zehar.

c) Ego ibaiaren zerga-ubideen bazterretan ez da lurrik bilduko. Eremu horietan, ur-lamelari gutxienez 30 metro erretiratzea errespetatuko da eta drainatze-sarera isuri ez kontrolatuak ez botatzeko beharrezko gailuak jarriko dira.

d) Obrako makineria edukitzeko eta haien mantentze-lanak egiteko tokia drainatze naturaleko saretik bereiziko da. Zolata iragazgaitza eta efluenteak biltzeko sistema bat edukiko ditu, olioek eta erregaiek lurzorua eta urak kutsa ez ditzaten. Erregaien zamalanak, olio-aldaketak eta tailerreko jarduerak ezin izango dira horretarako adierazitako eremuetatik kanpo egin.

e) Obretan hidrokarburoen xurgatzaile espezifikoa (biribilki modukoa, material pikortatua...) jarri beharko da eskura, ustekabeko isuri edo ihesen bat gertatuz gero berehala aplikatu ahal izateko.

f) Lanen zein ustiapen-garaian sortzen diren efluenteak isurtzeko, isuriak isurketarako baimenean organo eskudunak kasu bakoitzerako ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

2.c.3.– Airearen kutsadura saihesteko neurriak.

a) Obrak dirauen bitartean, ibilgailuak iragan ondoko garbiketa-lanak zorrotz kontrolatuko dira, bai obrek ukitutako ingurunean, bai obretara sartzeko guneetan. Ureztaketa- eta garbiketa-sistema bat jarriko da, aldi baterako estali gabe dauden lurzoruetan, edo ibilgailuak pasatzean material partikulatuen isuria eragin dezaketen lurzoruetan erabiltzeko.

b) Aireztapen sistemek atmosfera kutsatzen duten gasak aireratzen dituztenean, partikulak iragazteko sistemak jarriko dira tunela eraikitzen den bitartean.

c) Obra-eremuetako irteeretan, ibilgailuak garbitzeko gailuak jarriko dira, solidoak dekantatzeko sistema eta guzti.

Aipatutako elementuen ezaugarriak, kokapen zehatza eta neurriak ebazpen honetako 2.c.11 puntuan zehaztutako dokumentazioan adierazi beharko dira.

d) Indusketatik ateratako materiala hezetasun-baldintza egokienetan garraiatuko da, zama estaltzeko gailuak dituzten ibilgailuetan, lokatzak eta partikulak barreiatu ez daitezen.

2.c.4.– Soinuen eta bibrazioen eragina gutxitzeko neurriak.

a) Eraikitze-fasean, ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanean aurreikusitako neurri babesle guztiak martxan jarri beharko dira, bereziki obrak eragin handiena izango duen eremuetan, Ermuko erdigunean eta Eitzagakoan, esaterako.

b) Esandakoari eta Ermuko Udalak udal-ordenantzak aplikatuz ezartzen duenari kalterik egin gabe, obra-ondoan jendea bizi den lekuetan atseden-baldintzak aldatzea dakartzaten ekintza guztiak bertan behera utziko dira gauetan. Bereziki, Ermuko eta Eitzagako erdiguneetan saihestuko dira ekintza horiek, tunelaren sarbidean kamioiak gora eta behera ibiltzea barne.

c) Tunela egiteko obrak eta Eitzagako erdigunetik tunelaren sarbidera joateko aukera erabiltzea dirauten bitartean, sarbide horretatik hurbil bizi diren biztanleentzat informazio-sistema pertsonalizatua jarri beharko da martxan, jende horrek obraren plangintza eta obrak eta kamioien joan-etorriek sortutako hautsa, zarata eta bibrazioen ondorioak gutxitzeko eta kontrolatzeko aurreikusitako neurriak zehaztasunez ezagutu ditzan. Sistema horrek, honako informazio hau jasoko du gutxienez: obren iraupena, zer makina-mota ibiliko den sarbideetan, horiek erabiltzeko araubidea, ordutegi-mugak, abiadura-mugak eta segurtasun-baldintzak.

d) Galeria tunela gauzatzean, bibrazio handiak sortzen dituzten aurreratze-metodoak (mailu hidraulikoa, etab.) ahalik eta gehien saihestuko dira, bibrazio horiek hurbileko eraikuntzetara nabarmenki transmititu daitezkeen eremuetan.

e) Zonakatze akustikoari, kalitate helburuei eta ateratako zaratari dagokienez zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, lanetan erabiliko diren makinek, aire librean erabiltzeko makinen zaratari buruz indarrean dagoen legerian ezarritakoa bete beharko dute. Batez ere otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan ezarritakoa beteko dute, hau da, aire librean erabiltzeko zenbait makinek atera dezaketen zarata arautzen duena, eta gainerako arau osagarriak.

f) Funtzionamendu-fasean, urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 23. artikuluko muga-balioak gainditzen dituen zaratarik eremu akustikoen kanpo- eta barne-ingurumenera igaro ez daitezen beharrezko neurriak hartu beharko ditu trenbide-azpiegiturak.

Era berean, neurriak hartuko dira trenaren jardunak zuzenean nahiz zeharka zor dezakeen zaratak urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 14. eta 16. artikuluan zarataren gainean ezarritako helburu akustikoak gainditu ez ditzan.

Lehen ezarritakoa zortasun akustiko eremuetatik kanpo aplikatuko da.

g) Aurreikusitako mugak gainditzen direla egiaztatuz gero, igorpenak, hedapenak eta immisioak zuzentzeko sistema egokiak ezarri beharko dira, eremu bakoitzari dagokion erabileraren arabera, inpaktu horiek murrizte aldera, betiere.

h) Aipatutako urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 26. artikuluan xedatutakoari jarraituz, beharrezko neurriak hartuko dira, etxebizitzetarako, egoitzetarako, ospitaletarako, edota hezkuntzarako nahiz kulturarako eraikinen barrura ez helarazteko aipatutako arauaren 16. artikuluaren arabera kalitate akustikoari buruzko helburuak gainditzea eragiten duten bibraziorik, betiere IV. eranskinean ezarritako prozeduraren arabera ebaluaturik.

2.c.5.– Hondakinak kudeatzeko neurriak.

a) Proiektuaren gauzapen eta funtzionamenduak iraun bitartean sortutako hondakinak, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean eta araudi espezifikoetan ezarritakoarekin bat etorriz kudeatuko dira.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro, lehentasunez, behar bezala baimendutako balorazio-prozesu batetik igaro beharko da. Alde horretatik, honako

lehentasun-hurrenkera hau ezartzen da: berriro erabiltzeko prestatzea; birziklatzea; beste balorizazio mota bat, balorizazio energetikoa barne dela.

Hondakin horien balorizazioa teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren ikuspegitik bideraezina dela behar bezala ziurtatu ondoren soilik deuseztatu ahal izango dira hondakinak.

b) Eraikitze- eta eraispen-jardueren ondorioz sortutako hondakinak, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko den otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan eta eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko den ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan aurreikusitakoa betez kudeatuko dira.

Aipatu 112/2012 Dekretuaren 4. artikuluaren arabera, proiektuaren sustatzaileak hondakinen eta eraikitze- eta eraispen-materialen kudeaketa-azterlan bat gehitu beharko dio eraikitze-proiektuari; azterlan horrek, I. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du.

Halaber, otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan aurreikusitako betebeharrei kalterik egin gabe, obran sortuko diren hondakinei eta eraikitze- eta eraispen-materialei dagokienez dituen betebeharrak nola beteko dituen jasotzen duen plan bat egin beharko du kontratistak. Plan hori, ebazpen honetako 2.c.11 idatzi-zatian aipatzen den lan-programan txertatuko da.

c) Zabortegira bidali beharreko hondakinak, hondakinak zabortegietan utzita deuseztatzea arautzen duen abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretuaren eta hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren arabera kudeatuko dira.

Jarduerako soberakinak betelanak egiteko erabiltzen badira, aipatutako otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan ezarritako baldintzak bete beharko dira.

Betelaneko materialak eta lurzorua egokitzeko lanetarako, kutsatzaile-edukia A ebaluazioko balio adierazleetan (EBA-A) ezarritako baloreen azpitik duten materialak bakarrik baimenduko dira. Adierazle horiek lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen I. eranskinean daude jasota.

d) Obraren indusketaren soberakinei dagokienez, proiektuaren sustatzaileak proposatu du proiektuaren ingurumariko beste lan batzuetan erabiltzea, eraikuntza material gisa. Obretan erabiltzeko egokiak ez diren materialen kasuan, lur-metaketak gordetzeko hainbat kokaleku aztertu dira.

Alde horretatik, kutsatu gabeko lurzoruak eta obretan induskatutako material naturalak erabiliko dira uztailaren 28ko 22/2011 Legean, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoan, ezarritako araubidearen arabera, betiere eraikuntzarako erabiltzen badira, egoera naturalean, ateratako lekutik beste toki edo obra batzuetara eramanda.

Kudeaketarako araubide hori ez da aplikatuko, induskatutako material horiek baldin badaude uztailaren 21eko 22/1973 Legeak, meategien erregimenari buruzkoak, xedatutakoaren aplikazio-eremuan.

Indusketako soberakinak pilatzeko biltokiak egin behar izanez gero, betelana egiteko proiektu bat idatziko da, eta haren edukia otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan ezarritakora egokitu beharko da. Horretaz gain, proiektuan honako hauek jasoko dira: kontuan hartutako kokalekuetako bakoitzak ingurumenean duen eraginaren analisia, hartutako irtenbidearen justifikazioa, aurreikusitako zaharberritze- eta kontrol-neurriak, eta dagokien aurrekontu xehatua.

Lanak amaitzen direnean, sustatzaileak lur-mugimenduen gaineko balioespen xehatua bidali beharko du Ingurumen Sailburuordetzara. Horrez gain, indusketa-soberakinen jarraipen-txostena egin behar da, eta txosten horretan argi eta garbi jaso behar dira atera ziren lekuetan ez eta beste leku eta obra batzuetan eraikuntzarako erabilitako materialen kopuruak eta ezaugarriak. Horrez gain, erabilera baimenak aurkeztu beharko dira, bai meatzeen araudiaren barruan edo hondakinen araudiarekin bat etorrita. Horrez gain, azken kasu horretan ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren 7.3 artikuluan aipatzen diren egiaztagiriak bidali beharko dira.

e) Hondakin arriskutsu mota batzuk isuri eta nahastuz gero, haien arriskugarritasuna handitzen da edo haien kudeaketa zaildu; hori dela-eta, halakoak biltzeko sistemek independenteak izan behar dute.

Hondakin arriskutsuentzako ontziei dagokienez, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren (hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko oinarrizko araudia onartzen du Dekretu horrek) 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dira; itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

Aurreko puntuan aipatutako ontziek etiketatuta egon beharko dute; etiketa horiek argiak, irakurtzeko modukoak eta ezabaezinak izan beharko dute, eta uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoak.

f) Olio erabilia kudeatzeko honako xedapen hauek hartuko dira kontuan: ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretua, industriako olio erabiliaren kudeaketa arautzen duena; eta irailaren 29ko 259/1998 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan olio erabiliaren kudeaketa arautzen duena.

Baimendutako kudeatzaile bati eman arte, erabilitako olioa andel estankoetan bilduko da estalitako biltegi batean; andelok etiketatuta egon eta azpila edo atxikipen-sistemaren bat eduki beharko dute. Zola iragazgaitzaren gainean egon beharko dute, edozein ihes edo isuriri aurre egiteko prestatuta, elementu nagusia hautsiko balitz ere.

g) Obrak egiteko garaian, eraikitze- eta eraispen-hondakinak zatika bereizteko eremuak egokitu beharko dira kontratista kokatu behar den eremuetan, betiere ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera. Nolanahi ere, arriskutsutzat jotzen diren hondakinak gainerako hondakinetatik bereizi beharko dira, hondakin arriskutsuak kudeatzeko baimena duen pertsona batek dagokion tratamendu zuzena eman diezaion.

Aurrekoaren haritik, kontratistaren instalazio-eremuan aldi batean hondakin arriskutsuak pilatzeko eremu jakin bat egokituko da, hala nola olio-poteak, iragazkiak, olioak, margoak eta abar. Gainera, hondakin geldoentzako edukiontziak ere jarriko dira, hondakin arriskutsuen guneetatik bereizita.

Sortutako hondakinak biltzeko gailu estankoak jarriko dira obran (bidoiak, e.a.). Hondakinok euren izaeraren arabera bereiztuko dira, betiere aipatutako puntu garbian aldi batez biltegiratu ondoren.

h) Arau horiek betetzea errazteko, lan-mota bakoitzean sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak ezarri beharko dira. Sistema horiek zeregin bakoitzaren arduradunek kudeatuko dituzte, eta horiek arduratuko dira beharginek behar bezala erabiltzeaz. Bereziki, inolaz ere ez da eragingo kontrolatu gabeko efluenterik erregai eta produktuak biltegiratzean eta makineria mantentzeko lanak egitean, ezta hondakinik erreko ere.

i) Obretan sortutako hondakinen ingurumen-jarraipena jasoko duen txosten bat egin beharko da, eta, txosten horretan, indarrean dagoen legeriak jasotzen dituen hondakinen kontrolerako, jarraipenerako eta onarpenerako agiriak bildu beharko dira.

2.c.6.– Lurzoruaren kalitatea aurreikusitako erabilerekin bateragarria dela bermatzeko neurriak.

a) Proiektuak eragindako esparruan, irailaren 30eko 165/2008 Dekretuan, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioari buruzkoan, bai eta inbentario hori eguneratzeko egin diren ondorengo lanetan ere bildutako zati hauek identifikatu dira:

● 48034-00036 ibilgailu motordunentzako zati, pieza eta osagarri ez-elektrikoak fabrikatzea.

● 48034-00037 armak eta munizioak fabrikatzea, tresnak fabrikatzea.

● 48034-00038 aiztogintzako artikuluak, mahai-tresnak, erremintak eta burdindegi-artikuluak fabrikatzea.

● 48034-00039 erremintak fabrikatzea.

● 48034-00040 erremintak fabrikatzea.

● 48034-00041 Ibilgailu motordunak mantentzea eta konpontzea.

Aurreko kokapenei dagokienez, otsailaren 4ko 1/2005 Legearen, lurzorua ez kutsatzeko edo kutsatutakoa garbitzekoaren, 17. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen bada, lurzoruaren kalitatearen adierazpena lortu beharko da.

Artikulu horren arabera, lurra kutsa dezakeen jardueraren edo instalazioren bat jasan izan baina egun jarduerarik ez dagoen kokalekuetan, lur-mugimenduak burutzeko gaitzen duten lizentziak, baimenak eta gainerako ebazpenak emateko, lurzoruaren kalitatea adierazteko prozeduraren esparruko ingurumen-organoaren onarpena beharko da.

Leku horietan, lurrak mugitzerakoan, indusketa-materialak kudeatzerakoan eta gero lurzorua erabiltzerakoan, aipatutako prozeduren esparruan ingurumen-organoak ezartzen dituen baldintzak bete beharko dira.

b) Aurrekoaren kalterik gabe, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten leku gehiago aurkitzen badira obrak gauzatzean, edo lurzorua kutsatzen duten substantziak daudela pentsatzeko arrazoi sendoak baldin badaude, otsailaren 4ko 1/2005 Legean lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko ezarritakoa beteko da, halaber.

2.c.7.– Kultura-ondarea babesteko neurriak.

Uztailaren 3ko Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legeak xedatutakoari eta foru-organo eskudunak zehazten duenari kalterik egin gabe, inguru-inpaktuari buruzko azterlanaren 2. eranskinean aurreikusitako neurri babesleak eta zuzentzaileak aplikatu beharko dira.

Obrak egiterakoan aztarna arkeologikoren bat aurkituz gero, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailari jakinaraziko zaio berehala, eta hark erabakiko du ze neurri hartu behar diren.

2.c.8.– Zaharberritzeko eta obrak integratzeko neurri zuzentzaileak.

a) Lanek erasandako alde guztiak zaharberrituko dira; baita ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanean agertu ez, baina azkenean proiektuaren ondorioz kaltetu direnak ere. Zaharberritze

horrek esan nahi du, urbanizatu gabeko aldeetan, landarez estali daitezkeen eremu guztiak landareztatuko direla, eta, hiri-aldeetan, berriz, lorategi-elementuak berriro jarriko direla.

b) Lur-mugimenduak dauden bitartean, landaretza daukaten lur-eremuak kendu, metatu eta era bereizian zabalduko dira, aldatutako eremuan landare berriak jartzea eta eremua lehengoratzea errazteko. Landare berriak landatzean kenduko den landare-lurra modu egokian biltegiratuko da, lurra ez trinkotzeko, modu desegokian ez pilatzeko, eta euria egiten duen egunetan gaizki ez manipulatzeko. Gainera, pilatutako lurrak egoki mantenduko dira, eta, behar izanez gero, hidroereinketa erabiliko da.

c) Robinia pseudoacacia, Fallopia japonica, Cortaderia selloana edo beste landare inbaditzaile batzuk ez zabaltzeko ekintzak burutuko dira. Alde horretatik, landare-estalkia leheneratzeko erabilitako lurren jatorria kontrolatu beharko da bereziki, espezie horiekin kutsatutako lurrak ez erabiltzeko.

d) Ingurua zaharberritu ondorengo bi urteetan, mantentze-lanak egingo dira: lurra aitzurtu, ongarritu, ureztatu eta hutsarteak bete. Ereindako edo landatutako eremuak mantentzeko lanetan, ahalik eta herbizida eta pestizida gutxien erabiliko da, eta prozedura mekanikoei lehentasuna emango zaie. Herbizidak eta pestizidak ezinbestekoak izanez gero, iraunkortasun eta toxikotasun txikiena duten produktuak erabiliko dira.

e) Landareberritzeko proiektu batean jasoko dira aipatutako jarduerak, eta dokumentu hori eraikuntza-proiektuan sartuko da. Landareberritzeko proiektuak honako hauek hartuko ditu: memoria deskribatzailea –proposatutako tekniken justifikazioa, aukeratutako espezieak eta landatutako sailen dentsitatea barne dituela– neurketa-koadroa, obra-unitateen definizioa, betekizun teknikoen plegua eta aurrekontu zehaztua. Obra kontratatzeko baldintza-agiriak eta aurrekontuek landareberritzeko proiektuan aurreikusitako baldintza teknikoak eta aurrekontu-partidak jaso beharko dituzte, proposatutako jarduerak behar bezala betetzen direla bermatzeko.

2.c.9.– Garbiketa eta obra bukatzea.

Obra amaitu ondoren, garbiketa-lan zorrotza egingo da, eta proiektuaren eragina izan duen eremuan obra-soberakin guztiak kenduko dira, erabat garbi utzi arte. Eraispenetatik, enkofratuak kentzetik, eta, oro har, garbitze-lanetan sortutako hondakinak lanen eremutik kendu eta ebazpen honetako 2.c.5 idatzi-zatian xedatutakoaren arabera kudeatuko dira.

2.c.10.– Ingurumenari buruzko aholkularitza.

Obrak amaitu arte eta bermealdiak dirauen bitartean, ingurumen-gaietan eta neurri babesle eta zuzentzaileetan ondo jantzitako aholkularitza eduki beharko du obra-zuzendaritzak, ingurumen-inpaktuaren azterlanean zehaztutakoaren arabera. Baldintza-agiriak obraren zuzendaritzari esleitzen dizkion funtzioekin lotutako ebazpenak emateko, aldez aurretik aholkularitza ematen duten adituek egindako txostena aztertu beharko da.

2.c.11.– Lan-programaren diseinua.

Obrak hasi aurretik, jarraian datozen idatzi-zatietan azaltzen diren gaiei buruzko jarduera-proposamen zehaztua egin beharko du kontratistak. Proposamen horiek lanen gauzatze-programarekin batera jasoko dira, eta lanen zuzendariak berariaz onartu beharko ditu, ebazpen honetako 2.c.10 idatzi-zatian aipatutako ingurumen-aholkularitzak txostena egin ondoren. Honakoak dira agiriok:

● Kontratistaren instalazio-eremuen egokitzapena, ebazpen honen 2.c.1.d) idatzi-zatian aurreikusitakoari jarraikiz.

● Babestu beharreko habitatak, zuhaitzak eta zuhaitz-unadak zehaztea eta mugatzea, ebazpen honen 2.c.1.e) idatzi-zatian zehaztutakoaren arabera.

● Urak bideratzeko sareen eta efluenteak tratatzeko gailuen kokapena eta ezaugarriak, ebazpen honen 2.c.2.a) idatzi-zatian aurreikusitakoaren arabera.

● Ubideak babesteko iragazkien kokapena eta ezaugarriak, ebazpen honen 2.c.2.b) paragrafoan aurreikusitakoaren arabera.

● Gasak arazteko gailuen kokapena eta ezaugarriak, ebazpen honen 2.c.3.b) paragrafoan aurreikusitakoaren arabera.

● Kamioien gurpilak obretatik irtetean garbitzeko gailuen kokapena eta ezaugarriak, ebazpen honen 2.c.3.c) idatzi-zatian aurreikusitakoaren arabera.

2.D.– Ingurumena zaintzeko programa.

Proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin dadin sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan aurreikusitakoaren arabera egingo da ingurumena zaintzeko programa. Gainera, ondoren zehaztuko diren beste kontrol batzuk ere erantsiko zaizkio.

Programa hori obra kontratatzeko baldintza-agirietan sartuta egon behar da, eta bete ahal izatea bermatuko duen aurrekontuaz hornituko da.

2.d.1.– Gorabeheren erregistroa.

Obrak egin ahala sortutako gorabeheren erregistroa egin beharko da, bai eta neurri babesleak zein neurri zuzentzaileak noraino bete diren jasotzeko erregistroa ere. Erregistro hori, Ingurumen Sailburuordetzak ikuskatzeko moduan egin beharko da, eta, obrak amaitzen direnean, nolanahi ere, Sailburuordetzara bidali beharko da. Proiektua gauzatzean aldaketarik egin bada, aldaketa horiek xehetasunez adierazi beharko dira. Aldaketa guztiak, gainera, ingurumenean duten eraginaren ikuspegitik justifikatu behar dira.

2.d.2.– Obraren okupazio-mugen kontrola.

Egiaztatuko da gauzatutako okupazioa proiektuan aurreikusitakoarekin bat datorrela, obrek aurreikusitako azaleran soilik izan dutela eragina, eta babes-balizak egoera onean daudela.

Halaber, makinen kokapen zuzena eta egoera, eta instalazio laguntzaileen eremuak eta soberakinen biltegiak kontrolatuko dira, eta horiek guztiek neurri zuzentzaile egokiak dituztela bermatuko da, hau da, drainatzea, dekantazio sistemak, gurpilak garbitzeko sistemak eta abar.

2.d.3.– Uren kalitatearen kontrola.

Oro har, lanean irekitako zuloetatik ingurumen urtarrera isurketak egin daitezkeenean, urak isuri aurretik ur horiek bideratu, drainatu eta eusteko gailuak ondo dabiltzala egiaztatuko da, astean behin.

Halaber, ebazpen honen 2.c.2.a) idatzi-zatian ezarritako solidoen biltegietatik eratorritako hondakin-urak eta gurpilak garbitzeko sistemetatik eratorritakoak isuri baino lehen aztertuko dira. Hilero analisiak egingo dira, honako parametro hauek neurtzeko, gutxienez: emaria, pH, solido esekiak, eta olioak eta koipeak.

Azkenik, Beko Erreka edo Telleria ubidearen ibilguan eta inguruetan egingo diren lanek irauten duten bitartean, honako parametro hauek finkatuko dira, astero, obretatik abiatu eta ibaian gora eta ibaian behera joanda: partikula esekiak, hidrokarburoak, eta olio eta koipeak.

2.d.4.– Zarata eta bibrazioak kontrolatzea.

a) Obren faseak irauten duen bitartean, zaraten eta bibrazioen jarraipena egingo da, haien eraginaren mendean sentikorragoak diren Ermua eta Eitzagako eremuetan. Ateratako emaitzen arabera ebaluatuko da babesteko eta zuzentzeko neurri gehigarriak hartzeko premia.

b) Linea berria zerbitzuan jarri ondoren, zaraten kontrol bat egin beharko da trenbidea gainazalean doan eremuetan.

Halaber, eraikin sentikorrenei eragindako bibrazioen kontrol bat egin beharko da.

c) Kontrolak diseinatzeko garaian kontuan hartuko dira azaroaren 17ko 37/2003 Legean, zaratari buruzkoan, eta hura garatzeko araudietan ezarritako metodologiak.

2.d.5.– Airearen kalitatea kontrolatzea.

Eitzagako bokalaren guneak eragindako eremuan, atmosfera-ingurumenean zenbat partikula biltzen diren kontrolatuko da, legez ezarritako kalitate-helburuak ez direla gainditzen egiaztatzeko.

2.d.6.– Eraberritzearen arrakasta kontrolatzea.

Bermealdian, aldizkako jarraipena egingo zaio proiektuak eragindako gainazalen leheneratzeak izan duen arrakasta-mailari.

2.d.7.– Ingurumena zaintzeko programari buruzko agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bateratua egin beharko du. Bertan, ingurumen eraginari buruzko azterlanean proposatutako betebeharrak eta ebazpen honetan jasotakoak bilduko dira.

Programa horretan kontrolatuko diren parametroak eta parametro bakoitzerako erreferentziako balioak zehaztuko dira; horrez gain, laginketarako eta analisirako metodologia, kontrolerako puntuen kokapenari buruzko kartografia xehatua, haien maiztasuna eta guztia gauzatzeko aurrekontuaren gaineko xehetasunak ere jasoko dira.

2.d.8.– Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten txosten eta analisien emaitzak behar bezala erregistratu eta Ingurumen Sailburuordetza honetara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, ingurumenean aditua den erakunde batek egindako txostenarekin batera. Aipatutako txostenean emaitzen analisia jasoko da, eta berariaz adieraziko dira epe horretan izandako gertakari nagusiak, bai eta haien balizko zioak eta konponbideak ere.

Sustatzaileak datuak euskarri egokian bilduko ditu bi urtez gutxienez, eta herri-administrazioen ikuskaritza zerbitzuen eskueran egongo dira; hori guztia, hala ere, ez da eragozpen izango kasu bakoitzean aplikagarri den araudia betetzeko.

2.E.– Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egiturari eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala egitera bagaramatza, neurri babesle eta zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldatu

ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta, edo ofizioz, ingurumen-organoak neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldaraz ditzake. Hori guztia, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta, edo ingurumen-inpaktuak saihesteko ezarri diren neurri babesle, zuzentzaile zein osabidezkoak gutxiegizkoak direla egiaztatzen denean.

2.F.– Ebazpen honen aurreko idatzi-zatietan xedatutakoa kaltetu gabe, ebazpen honen 2.d.7 idatzi-zatian aurreikusitakoari jarraituz, sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren dokumentu bategina bidali beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari hark onar dezan, betiere eraikuntza-proiektua onetsi baino lehen.

2.G.– Halaber, ebazpen honen aurreko paragrafoetan ezarritakoari kalterik egin gabe, sustatzaileak honako agiri hauek igorri beharko ditu Ingurumen Sailburuordetzara:

2.g.1.– Lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenaren prozedura hasteko eskabidea, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruetan eragina duten obrak hasi aurretik.

2.g.2.– Obrak garatu bitartean sortutako gorabeheren erregistroa, neurri babesleak eta zuzentzaileak zein neurritaraino bete diren jasoko duena, ebazpen honen 2.d.1 idatzi-zatian aurreikusitakoari jarraituz. Agiri hori, obrak amaitu eta gehienez ere bi hilabeteko epean aurkeztuko da, eta espedientean sartuko da.

2.g.3.– Lur-mugimenduen balantze zehatza eta indusketa-soberakinen jarraipen-txostena, obrak amaitu eta gehienez ere bi hilabeteko epean, eta txosten horretan argi eta garbi jaso behar dira atera ziren lekuetan ez eta beste leku eta obra batzuetan eraikuntzarako erabilitako materialen kopuruak eta ezaugarriak. Horrez gain, erabilera-baimenak aurkeztu beharko dira, meatzeen araudiaren arabera nahiz hondakinen araudiarekin bat etorrita. Azken kasu honetan, gainera, ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren 7.3 artikuluan aipatzen diren egiaztagiriak bidali beharko dira. Hori guztia, ebazpen honen 2.c.5.d) idatzi-zatian aurreikusitakoaren arabera egingo da, eta egiaztagirioz espedientean sartuko dira,

2.g.4.– Obrak amaitu eta bi hilabeteko epea bete baino lehen, obren fasean sortutako hondakinen ingurumen-jarraipenari dagokion txostena, ebazpen honetako 2.c.5.i) idatzi-zatian adierazitakoaren arabera.

2.g.5.– Urtero, obrak hasten direnetik, ingurumena zaintzeko programari buruzko agiria, ebazpen honetako 2.d.7 idatzi-zatian aurreikusitakoaren arabera; agiri hori, espedientean sartuko da.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 47.8 artikuluaren arabera, 2 urteko epea ezartzea proiektua martxan jartzeko, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ingurumenaren gaineko eraginari buruzko adierazpen hau argitaratzen den unetik kontatzen hasita. Epe hori proiektuari hasiera eman gabe bukatzen bada, sustatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, ingurumen-inpaktuari buruzko adierazpen hau baliogabetu egingo da. Hala ere, organo aginpidedunak hasiera emateko epea luzatu ahal izango du, behar bezala justifikatutako arrazoirik balego.

4.– Proiektuen ingurumen-inpaktuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 14.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, proiektuaren sustatzaileak aldez aurretik jakinarazi beharko dio ingurumen-organoari proiektuari dagozkion lanak zein egunetan hasiko diren.

5.– Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak 2012ko maiatzaren 10ean eginiko eskaeran atzera egin duela ulertzen da, Zaldibar-Ermua tarteko trenbide-trazaduraren saihesbidearen proiektuaren gainerako azpitarteen ingurumen-inpaktuari dagokionez (pK 0+000 eta pK 3+920 arteko azpitartea).

Hori horrela izanik ere, aipatu eskaera berriro egin ahalko da 2011ko urtarrilaren 24an ingurumen-organoak egindako txostenean ezarritako epean, oraindik indarrean baitago. Epe hori bederatzi hilabetera arte luzatu ahalko da, betiere proiektuen ingurumen-inpaktua ebaluatzeko Legearen testu bategina onartzeko den urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 10. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Dekretu hori, martxoaren 24ko 6/2010 Legeak aldatu zuen.

6.– Ingurumen-inpaktuari buruzko adierazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko azaroaren 5a.

Ingurumeneko sailburuordea,
M.ª ARANZAZU LETURIONDO ARANZAMENDI.